


Latxortena

FRUITUA landarearen gailurra da. Sustrai, zuztarra eta hostoa bizi-tzeko nahitaez behar dituenak. Behar baino gehiago elikagai sor-tzen duenean erreserbak gizen-tzen ditu. Eta behin heldutasune-ra iritsita eskuera nahikoa elikagai badu ugaltzera joko du. Ugaltzeko landare gehienek lorea eman, hura ernalduta eta haziak helduko dituen fruitua onduko dute. Landare bati kendu nahi diogun mozkina lorea, fruitua edo haziak bada baldintza horiek bete beste aukerarik ez da: heldutasuna –inausketa askok galarazten duena– eta elikagaiak. Baldintza derrigorrezkoak, beti ez nahiko, ordea.

Lorea nahi izatera bai, baina fruituak edo haziak behar izanez gero jai. Horiek sortzeko lorea ernalduta egin behar, bi sexuak nahasi behar. Horretarako lankide beharrean dira landare gehienak: haizea, intsektuak... Azken horietan garrantzitsuenak erleak dira. Badu, bai, fruituzaleak haien pre-miaren berri.

Erleak erakartzeko trikimailuak dira loreak, batez ere. Kolorea, forma, egitura, jarrera, itxura, usaina, lurrina, nektarra, zukua, mugimendua, edozein joko on da lorearen helburua burutzeko. Bere burutu behar horretan landare askori burua joan egin zaie, zoratu eta zorabiatu, eta intsektu bakar baten gogara makurtu eta preso



ROB HILL

Lobularia maritima, Latxortena.

dira. Hark nahi duen itxura, usai-na eta abar sortzeraino joan eta gero ezin buelta, hura behar sexu-rako, fruiturako, hazitarako. Intsektu horrena baino ez den edertasuna sortu du landareak, niretzat nahiko nukeen edertasun eskusiboa eraikitze gaitasuna... Intsektuei inbidia hartuta naiz, bekaiztua.

Erleak bezala erlastarrak, kotxorroak... bakoitzak bere loreak ditu, zain ditu. Guk mozkin nahi ditugun horiek sortuko dituzten loreek zein hegalaria behar duten jakitea komeni. Eta lagun-du. Eta lagun egin.

Mozkin fruituez ari garela baratzera goazen. Orintxe antolatzen ari da uda aldeko baratzeko lanen

muina. Pentsa dezagun zein fruitu bildu nahiko ditugun: artoa, babarruna, leka, piperra, tomate, alberjina, marrubia, kuia, luzoke-rra, kornixona... Haien loreetara zenbat eta intsektu polinizatzaile gehiago erakarri, orduan eta fruitu oparoago.

Tomatea, adibidez, burupolini-zatzailea da, berez ez du inoren beharrik. Eguraldia hala-moduzkoa bada, ezin burulan hori burutu. Erlastarra lagun ona da horretan. Horiek loreetara inguratzeko tomatepetan latxortena, *Lobularia maritima*, jartzen da. Alyssum ere deitzen zaio. Usain gozo bete baratzeta eta saski bete tomate. ■



Kala LORADENDA

Kala LORE APAINDURAK

Paisajismo zerbitzua
Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 • 20870 Elgoibar
Tel: 943744516

ERICA

JARDINERIA S.L.

☎ 605 727 429
info@ericajardineria.com
www.ericajardineria.com

ESKATU
PUBLIZITATEA
EUSKARAZ

☎ 943 371 545
www.argia.com/tarifak